

MUNGIA – SAN PEDRO JAIK 2022

bagilaren 24an – Ekainak 24

Holan, bagilaren 24an, barikuan, **Linkin Parke eta Sua taldeen kontzertuek** alaituko dabe giroa, eta

Ekainak 25 - zapatua - mozorro-gaua

Los Cojones Metal taldeak eta Chill Mafia nafarrek gauza bera egingo dabe hurrengo egunean, zapatuan,, egun horretan ospatuko dan **mozorro-gauari** erritmoa emonez. Ganera, zapatu goizean **pizza tailerra** egingo da txosna-gunean.

Ekainak 26 Domekan, Baserritarraren Eguna dala eta, ekintza ugari egingo dira goizean zehar, bai eta **nekazaritza azokea**, Bizkaiko Betizu ganadu lehiaketeta, bertako animalien eta animalia exotikoen erakusketeta, **artisautza azoka** Mungiar Alkartearen eskutik eta **bigarren eskuko liburu salmentea** be. Ganera, **Zaporeak GKEak** (Europara heltzen diran errefuxiatuei janari duina emoten deutesen irabazi-asmorik bako alkateta) stand bat jarriko dau bere xedearen inguruan sentsibilizetako eta informatako.

13:00etan Matxin plazan herri **kirolen erakustaldia** izango da eta Torrebillela Parkean Betizu ganadu lehiaketaren sari banaketeta. Hori guztia **Txikuri fanfarreak** girotuko dau.

15:00etan mungiarrek txosna-gunean alkatuko dira Mungiberri Kultur Elkartek antolatutako **bazkari herrikoian** eta, ostean, Marijata Kultur Elkartek antolatutako **Mus txapelketeta** jokatzeko. Jaiari amaiera emoteko, herriko hainbat taldek, Alaiak Mungialdeko **Soinulari** Elkartek, Gure Ametsa **Txistulari** Taldeak, J.M Arregi **Abesbatzak** eta Tantak Koralak **kontzertua** eskeiniko dabe.

Pregoa eta Txupinazoa - bagilaren 28an – Ekainak 28

Martitzenean, hilak 28, **Txupinazoa eta Pregoa** izango dira, aurton DIZ-DIZ Mungiaiko emakumeen elkartearen eskutik eta Joseina Etxeberriak girotuta. Horren ostean, **erraldoiek, dultzainek eta Electric sound fanfarreak** bultzatutako giro ona nagusituko da Mungiaiko kaleetan. **Gauean Runaway taldeak** Bon Jovi omenduko dau Foruen Plazan eta **Oxabik** txosna-gunea girotuko dau.

San Pedro eguna - bagilaren 29an – Ekainak 29

Jaiei izena emoten deutesen San Pedro egunean, bagilaren 29an, eguaztenean, ekintza ugari egongo dira 11:30etatik gauerdira arte.

Goizean zehar, **ekintzak umeei zuzenduta** egongo dira batez be, besteak beste, kalejira, aurton barritasun moduan egun bakarraren orde bi egunez jarriko dan **umeen-parkea, eta txu-txu trenak**. **Trenak** 11:30ean egingo dau lehenengo urteerea udaletxetik.

12:00etan meza nagusia egingo da Andra Mari eleizan, eta horren ostean **Taket Mungiaiko Bertso Eskolak** antolatutako bertso saioa.

12:00etatik aurrera **pintxo-potea** egingo da txosna-gunean eta

13:00etan ohorezko aurrekua Juan XXIII plazan. Ondoren **kalejira erraldoi, dultzaina eta trikitaliak** eta **esku pilota partiduak** izango dira.

20:00etatik aurrera, musikak Mungiako txoko guztiak hartuko ditu barrero, **Artistas del gremio Fanfarriagaz, Puro Relajo** talde nafarrak ekarriko dituen soinu mexikarrakaz Foruen plazan eta txosna-gunean egongo dan Lehian **erromeriagaz**. Aldi berean, baina Matxin plazan, **Amilotx Dantza Taldeak** eta Oreka TXk "Lur Hau Gurea" ikuskizuna eskeiniko dabe, Mikel Markez eta Andrea Bidarten laguntzeagaz

San Pedrotxu eguna - bagilaren 30ean – Ekainak 30

Jai giroak hurrengo egunean, bagilaren 30ean, jarraituko dau. **11:30etik** aurrera San Pedrotxu ospatuko da. Eguna **Gure Ametsa Txistulari Taldeak** hasiko dau eta **umeentzako parkea** egongo da. Ganera, Matxin Plazan arituko den **Los Cinco Bilbainos taldeak** eta **Los Incansables fanfarreak** giroa alaituko dabe **12:30etik** aurrera Mungiako kaleetan zehar.

17:00etan, ohiko **tortilla lehiaketea** egingo da, Mungia Saskibalo Taldeak antolatuta. Horren ostean, familia osoari zuzendutako **Zoomba eta Diskofestea** egingo dira Uriguen parkean, eta **Buhos & ETSren kontzertua** Foruen plazan.

garagarrilaren 1an – Uztailak 1

San Pedro 2022ko bigarren asteburua, txosna-gunean egingo dan **bazkari herrikoiak** inaugurauko dau, barikuan, garagarrilaren 1ean, 15:00etan. 18:00etatik aurrera musika egongo da herri osoan, **elektrotxaranga** batetik hasita, **bertsolariak** kalez-kale jarraituz eta Foruen plazan egongo dan **I love 80' kontzertuagaz** amaituta. Txosna-gunean **TOC & Wicked Wizard** arituko da. Ganera, **zirku-ikuskizuna** egingo da Matxin plazan Orain-bi zirko konpainiaren eskutik, eta Torrebillela Kultur Etxean Gorabide Elkartek antolatutako **erakusketea** egongo da.

Nagusien Eguna - garagarrilaren 2an - Uztailak 2 - zapatua

Hurrengo egunean, garagarrilaren 2an, zapatuan, Nagusien Eguna ospatuko da eta goizetik hasita ekintzak egongo dira: **meza San Pedro parrokian** 12:00etan eta **dantza erakustaldia** txosna-gunean. 13:00etan Matxin plazan **Tio Teronen Semeak**-en "Freshcool" dantza ikuskizuna egongo da, eta 14:30ean **herriko adinekoek bazkaria** eta **erromeria** izango dabe **Roberto eta Idoiaren** eskutik. Arratsaldeko ekitaldiak 16:00etan hasiko dira **street basket txapelketetaz**, ostean talo tailerra 17:00etan eta 19:00etan **dantza erakustaldia**. Amaitzeko, **Egan eta Skabidean** musika taldeek **kontzertuak** eskeiniko ditue, lehenengoak Foruen plazan eta bigarrenak txosna-gunean

Sukalki Eguna eta jaien amaierrea - garagarrilaren 3an - Uztailak 3 - Igandea

Domekan, garagarrilaren 3an, Mungia Rugby Taldeak **Sukalki Eguna** antolatuko dau, Mungiako **Gure Ametsa Txistulari Taldeak, Roberto eta Idoiaren trikitixak** eta Txikuri **fanfarreak** alaituta.

22:00etan jaien amaierrea etorriko da **Lorratz erromeriagaz** Foruen plazan eta, 24:00etan mungiarrek udaletxearen aurrean alkartuko dira **Marijata agurtzeko eta zapiak erretako**.